



EPE 2020: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN SARTZEKO ETA HORRA IRISTEKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAKETA-PROZEDURAK, BAITA ESPEZIALITATE BERRIAK ESKURATZEKO ERE, HEZKUNTZA SAILBURUKO 2020KO OTSAILAREN 18KO AGUINDUAREN BIDEZ DEITUA.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA BERRIRO HASTEA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoerak, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko, administrazio-epeak etetea ekarri zuen, besteak beste, hautaketa-prozedura honetarako ezarritako eskabideak aurkezteko epea.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua xedatzen duenez, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, eten diren administrazio-epeak berriro hasiko dira zenbatzen, edo berriz hasiko dira, hala aurreikusten bada alarma-egoera eta luzapenak indarrean dauden bitartean onartutako lege-mailako arauen batean.

Beraz, berriro hasiko da zenbatzen **eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea, 2020ko ekainaren 1etik ekainaren 5era, biak barne**. Era berean, epe horretan bertan honako hau ere egin daiteke: aurkeztuta dagoen eskaera ordaindu (oraindik ordaindu ez bada), bai eta alde zuzenetik betetako eskabidean edozein aldaketa eskatu ere (Kontsultatu nola egin "Gehien egiten diren galderak" atalean, Hezkuntza Saileko web orrian).

Honako hiru kasu hauetan bakarrik aurkeztu beharko da dokumentazioa:

1) Hizkuntza-eskakizuneko proba egitea eskatzen baduzu, baina irakasleen ordezkogaien zerrandan ez bazaude: deialdiaren 2.2.1 oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agirien fotokopia.

2) Desgaitasuna baduzu eta probak egiteko denbora eta baliabide materialak egokitzea eskatzen baduzu: irizpen tekniko fakultatiboa, minusbalotasun-maila eragin duten gabezia iraunkorrek egiaztatzen dituen, edo irakaslea ez den lanbide batean ezintasun iraunkor osoa aitortzen duen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Ebazpena.

3) Espainiako nazionalitatezik ez baduzu eta hizkuntza ofizialtzat espainiera ez baduzu, eta gaztelaniaren ezagutza-probaren salbuespenaz baliatu nahi baduzu:

- Espainierazko diploma (goi-mailako maila) edo espainierazko diploma (C2 maila)
- Atzerriarrentzako gaztelania-maila aurreratuaren ziurtagiria edo gaitasun-ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialek emana.
- Filologia Hispanikoan edo Erromanikoan lizentziatua edo dagokion gradua
- Kidegoan sartzeko alegatutako titulua, Espainiako estatuan edo hizkuntza ofiziala espainiera duen estaturen batean emana eta egina
- Aurreko deialdietan proba hori gainditu duzula egiaztatzen duen agiria.



Aipatutako dokumentazioa Erregistro Elektronikoaren bidez entregatu ahal izango da edo posta-bulego batean (gutun-azal irekian, Correos-eko langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar diezaioten).

2020ko martxoaren 14tik aurrera izapidetutako eskabideak eta agiriak aurkeztutzat joko dira epea berriro hasten den lehen egunean (2020/06/01).

Gasteizen, 2020ko maiatzaren 28an